

## **Udalak udaberriko bonuen kanpaina jarri du martxan Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea suspertzeko**

Andoaingo Udalak, Salkin merkatarari eta ostalarien elkartearekin elkarlanean, 2500 bonu jarriko ditu andoaingarren eskura, tokiko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuen sektorean kontsumo kontzientea sustatzeko. "Udalak badaki tokiko merkataritzak zailtasunak dituela, eta, horregatik, sektore hori babestu nahi dugu udalerrian erosketak bultzatzeko ekimenak abian jarritz. Horrekin guztiarekin, harreman hurbilagoa sortzen da negozioaren eta bezeroen artean, eta konfiantza eta gogobetetze-giroa sortzen da" adierazi du Andoni Álvarez alkateak.

Gainera, "tokian tokikoa kontsumitzeak, gure herriko merkatarari eta saltokiei onura egiteaz gain, gure inguruneari ere egiten dio mesede. Herriko komertzio eta ostalaritzan erositako guztiok ateratzen gara irabazle; zuretzat denda bat dena, zure herriarentzat dena da".

Kanpaina honetan, berriz ere, parte hartzen duten establezimendu guztien artean ahalik eta banaketa bidezkoena lortzeko, bonuak koloretakoak izango dira. Bonu bakoitzak 10 euroko 5 txartel izango ditu, eta txartel bakoitza 5 euroko bi zatitan banatuko da. Lau kolore egongo dira: berdea, janari-dendetarako eta ostalaritzarako (okindegiak, harategiak, arrandegiak, fruta-dendak, edari-dendak, gozotegiak, edari-dendak, tabernak, jatetxeak, kafetegiak); laranja, modako saltokietarako (oinetakoak, osagarriak, kirol-dendak, mertzeriak eta bitxi-dendak); urdina, zerbitzuetarako (ile-apaindegiak, farmaziak, optikak, liburu-dendak, etxetresna elektrikoak...); eta horia, bi txartel, komodin gisa, edozein establezimendutan erabiltzeko.

Bonuek 50 euroko balioa izango dute eta 30 euroko prezioan salduko dira. Bonu bakoitza 10 euroko 5 kupoitan banatuko da eta kanpainari atxikitako establezimenduetan erabili ahal izango dira. Establezimendu horiek behar bezala identifikatzeko, berariazko kartela izateaz gain, atxikitako establezimenduen zerrenda osoa emango da bonuak ematearekin batera. Aldi berean, establezimenduen zerrenda hori salkinen webgunean ([www.salkin.eus](http://www.salkin.eus)) egongo da ikusgai.

### **Nola eskuratu bonuak:**

Bonuak maiatzaren 19tik 23ra erosi ahal izango dira SALKINen lokalean (Agustin Leitza kalea, 11) agortu arte. Ilarak saihesteko eta erosketa errazteko tiketak banatuko dira: maiatzaren 15ean (1.500 goizean eta 1.000 arratsaldean) eta 16an (tiketak soberan badaude).

Andoainen erroldatuta dauden adin nagusiko guztiek bonuak erosi ahal izango dituzte. Horretarako, NANA aurkeztu beharko dute (gehienez, bonu bat salduko da NAN bakoitzeko, eta gehienez bi NAN onartuko dira pertsona bakoitzeko). SALKINen arreta ordutegia goizez (10:00etatik 14:00etara) eta arratsaldez (16:30etik 20:00etara) izango da. Kreditu-txartelarekin ordaindu beharko da erosketa, eta ez da eskudirurik onartuko.

Andoaingo Udalak eta Salkinek kanpaina honetan parte hartzera animatu dituzte andoaindarrak, bertako merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kontsumoa sustatzeko, tokiko ekonomia dinamizatzen eta udalerriko familiei tokiko establezimenduetan produktuak erosten laguntzeko.

Andoain, 2025eko maiatzak 9

## **El Ayuntamiento pone en marcha una campaña de bonos de primavera para reactivar el sector comercial, hostelero y de servicios de Andoain**

Un año más el Ayuntamiento de Andoain, en colaboración con la asociación de comerciantes y hosteleros Salkin, pondrá a disposición de las y los andoaindarras 2500 bonos para fomentar el consumo consciente en el comercio local, la hostelería y el sector servicios. El alcalde de Andoain, Andoni Álvarez, señala: "Desde el Ayuntamiento somos conscientes de las dificultades que tiene el comercio local, por eso queremos apoyar a este sector poniendo en marcha iniciativas que impulsen la compra en el municipio. Con todo ello se genera una relación más cercana entre el negocio y la clientela, creando un ambiente de confianza y satisfacción". Además, "el consumo local no sólo beneficia a las y los comerciantes y comercios de nuestro municipio, sino también a nuestro entorno. Para ti una tienda, para tu pueblo, todo".

En esta campaña, nuevamente, para conseguir una distribución lo más equitativa posible entre todos los establecimientos participantes, los bonos serán de colores. Cada bono tendrá 5 tarjetas de 10 euros cada una, y cada tarjeta, a su vez, se dividirá en dos partes de 5 euros cada una. Habrá cuatro colores: verde para tiendas de alimentación y hostelería (panaderías, carnicerías, pescaderías, fruterías, tiendas de bebidas, pastelerías, bares, restaurantes, cafeterías); naranja para comercios de moda (calzado, complementos, tiendas deportivas, mercerías y joyerías); azul para servicios (peluquerías, farmacias, ópticas, librerías, tiendas de electrodomésticos...); y amarillo, dos tarjetas, que servirán de comodín, para utilizar en cualquier establecimiento.

Los bonos tendrán un valor de 50 euros y se venderán a un precio de 30 euros. Cada bono se distribuirá en 5 cupones de 10 euros que se podrán utilizar en los establecimientos adheridos a la campaña. Para la correcta identificación de estos establecimientos, además de contar con un cartel específico, se facilitará un listado completo de los establecimientos adheridos junto con la entrega de los bonos. Al mismo tiempo, este listado de establecimientos estará disponible en la página web de Salkin: [www.salkin.eus](http://www.salkin.eus).

### **Cómo obtener los bonos:**

Los bonos se podrán adquirir del 19 al 23 de mayo en el local de Salkin (calle Agustín Leitza, 11) o hasta agotar existencias. Se repartirán tickets para evitar colas y facilitar la compra: el 15 de mayo (1.500 por la mañana y 1.000 por la tarde) y el 16 (si sobran tickets).

Todas las personas mayores de edad empadronadas en Andoain podrán adquirir el bono, para ello, deberán presentar el DNI (como máximo se venderá un bono por DNI y se admitirán un máximo de dos DNI por persona). El horario de atención en SALKIN será de mañana (de 10:00 a 14:00 horas) y tarde (de 16:30 a 20:00 horas). La compra deberá pagarse con tarjeta de crédito y no se admitirá dinero en efectivo.

El Ayuntamiento de Andoain y Salkin animan a la ciudadanía de Andoain a participar en esta campaña para fomentar el consumo en el comercio, hostelería y servicios locales, dinamizar la economía local y ayudar a las familias del municipio a comprar productos en los establecimientos locales.

Andoain, 9 de mayo de 2025